

**OGPEuskadi**

konpromiso

**propuestas normativas**

**HERRITARRENAK**

#4

---

# Ko-diseinu

## 1. tailerra

**Bilkura txostena**

2022/03/29

## Tailerraren garapena. Txostena

### 1. Bertaratuak

Guztira **17 parte-hartzaile** izan ziren:

- Ezarpenaren arduraduna (1)
- Exekuziorako eta ezarpenerako koliderra (1)
- Proiektuaren arduradunak (1)
- Proiektuaren arduradun teknologikoak (2)
- Konpromiso-taldeko kideak (7)
- Lege-aholkularia (1)
- Bulego Teknikoa (4)



INSTITUZIOA	PERTSONA	KARGUA / OKUPAZIOA	ROLA PROIEKTUAN
Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	Javier Bikandi Irazabal	Herritarrek Hartzeko eta Zerbitzu Digitalak Zuzendaritza	Exekutatzeko eta ezartzeko arduraduna
Bilboko Udala	Miren Gotzone Zaldunbide Solaun	Herritarren Arretako eta Partaidetzako Zuzendaria	Kolidergo egitea eta ezartzea
Eusko Jaurlaritzaren	Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino	Proiektuen arduraduna	Proiektuaren arduraduna
EJIE- Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak	Alex Lara Garachana	Proiektuen arduraduna	Proiektuaren arduradun teknologikoa
EJIE- Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak	Pilar Pascual	EJIEko teknikaria	Proiektuaren arduradun teknologikoa
Arantza Gaur Fundazioa-Arantzazulab	Ione Ardaiz Osacar	Gizarte Berrikuntzako arduraduna	Konpromiso-taldeko kidea
Elhuyar Fundazioa	Idurre	Parte-hartzearen eta eraldaketaren arduraduna	Konpromiso-taldeko kidea
Emun aholkulariak	Mikeldi Zeberio	Aholkularia	Konpromiso-taldeko kidea
Laudioko Udala	Ander Larrinaga	Udal estrategiako zinegotzia	Konpromiso-taldeko kidea
Barakaldoko Udala	Carol Zabaco Pérez	IKTen eta Gardentasunaren koordinatzailea	Konpromiso-taldeko kidea
Bizkaiko Foru Aldundia	Elisabete Arriaga	Gardentasunaren eta Gobernu Ona	Konpromiso-taldeko kidea
Bizkaiko Foru Aldundia	María Presa	Gardentasunaren eta Gobernu Ona	Konpromiso-taldeko kidea
Desidedatum	Jorge Campanillas	Lege-aholkularia	Aholkulari independentea
Desidedatum	Alberto Ortiz de Zárate	Proiektuburua	Bulego teknikoa
Desidedatum	Iratxe Sainz	Aholkularia	Bulego teknikoa
Desidedatum	Itziar García	Aholkularia	Bulego teknikoa
Desidedatum	Elen M. García	Aholkularia	Bulego teknikoa

## 2. Gai zerrenda


- Taldearen aurkezpena
- Proiektuaren aurkezpena
- Metodologiarako sarrera
- Ko-sorkuntzako tailerra

## 3. Bileraren laburpena

Aurreikusitako gai-zerrendari jarraituz, bilera lantaldearen aurkezpen batekin hasi zen, ez bakarrik gu elkar ezagutzeko helburuarekin, baizik eta baita bertatik bertara irudikatuko ziren ikuspegi desberdinak kokatzeko ere.

Jarraian, proiektuaren zuzendaritza teknikoak proiektuaren irismena eta aurreikusitako garapen-faseak azaldu zituen.

Lege-aholkulariak tresnaren diseinuarekin batera garatuko den araudiaren berrikuspen prozesua azaldu zuen, eta bideratzaileak diseinu-prozesua gidatuko duen metodologiari buruzko sarrera labur bat azaldu zuen.




Une horretatik aurrera, eta tailerraren dinamikaren helburuak eta funtzionamendua azaldu ondoren, elkarrekin diseinatzeko saioa hasi zen.

Lantaldeari galdera batzuk egin zitzaizkion, 5 aurreikusita zeuden, eta horien inguruan sor zitezkeen ideia guztiak partekatzeko eskatu zitzaien. Horrelaxe, galderak banan-banan botaz, eta denbora tarte nahikoa utziz bata eta hurrengoaren artean, ideien sormena eta parte-hartzaileen arteko elkarrizketa bultzatu zen, agertutako ekarpenak erantzun itxi batetik haratago aberastea lortzeko asmoz.

Lehenengo gaia, erabiltzaileen beharrak identifikatzen saiatzera bideratua, tresnaren erabilera-testuinguru posibleak eta problematika ezagunak identifikatzeari buruzkoa izan zen.

Bigarren gaia, arazoak identifikatu ondoren, irtenbide posibleak ematea izan zen.



Lehen atal ireki eta dibergente honen helburua ahalik eta erantzun gehien biltzea da. Imajinatzea, desiratzea eta proiektatzea da kontua. Horrela, diseinu-erabakiak bidera ditzaketen elementuak aurki daitezke.

Aurreikusitako bigarren faseak, zehatzago definitu nahi ditu elementu espezifikoak, agian nabarmenagoak, baina diseinuaren mugak zehaztuko dituztenak. Denborarik ez zegoenez, fase hori ezin izan zen bileran bertan landu; horregatik, atal hori hurrengo bilerara arte ez atzeratzeko asmoz, erantzunak banaka eta idatziz osatzeko proposatu zitzaizen parte-hartzaileei. (Ikus 5. puntua)

Halaber, lantaldeko prte-hartzailei eskaini zitzaizen posta elektronikoz edo Teams-eko taldeko txat-aren bidez bidali ditzatela tintontzian gera zitezkeen ekarpenak. Gauza bera bertaratu ezin izan ziren baina saioa geroratuta ikusiko duten pertsona interesdunak. Beraiek ere ekarpenak bide horietatik bidali dezakete.

#### **4. Ekarpenak**

Hurrengo taulan, tailerraren dinamikan bertan eta baita bileraren beste une batzuetan jasotako ekarpenak jaso dira. Tailerrako unetik kampo sortu arren, informazio garrantzitsua ematen dute ekarpen hauek eta horregaitik kontutan hartu behar dira, ere, diseinuaren garapenaren ondorengo urratsetan.

TESTUINGURUA/PROBLEMATIKA: BEHARRAK	IRTENBIDE POSIBLEAK: ITXAROPENAK
Tradizionalki paperean egin izan den prozesua	Ekimena garatzen laguntzea kolektiboek
Ez dakigu noiz proposa daitezkeen arauak, araututa dagoen ala ez	Arreta jartzea esperientzia osoari, ez tresnari bakarrik diseinu-prozesuan
Arazoa konpontzeko egokia izango litzatekeen arauaren maila ez da ezagutzen	Nola definitzen ditugu interes-eremuak? Hedapena baldintzatuko luke
Eten digitala	Gaiari buruzko arauen bilatzaileak sortzea, hobetu behar dena aztertzeke
Nola arautzen den	Planteamendu orokorrari erantzun azkarra ematea, prozesuaren amaieran "ez" batekin ez aurkitzeko
Sinadura konplexua eta garapenaren ibilbidea biltzea	Sustatzaileari argi eta garbi jakinaraztea zer urrats egin behar dituen.
Ospea galtzen ari da arauak zerbaitetarako balio izatea, asko ez dira betetzen, herritarren eszeptizismoa dago.	Ahal den neurrian, araudien artean irizpideak bateratzen saiatzea, bete beharreko urratsen barruan.
Herritarrak ez dira fidatzen administrazioek arau-proposamenak entzuteko duten sentsibilitateaz	Arazoa ez da beti arau berri batekin konpontzen; lehendik dagoen arau baten elementuak aldatzeko edo eraberritzeko ekimenak ere aurreikusi behar dira.
Eskaera orokorrak edo zehatzak, eta ez jakitea konponbidea arau-eremutik etor litekeela	Deliberazio demokratikoko prozesuetan bezala, araua asmatu behar da, guztiz egituratutako arau-proposamena ez bada ere
Ekimena hartzen duten kolektiboek aholkularitza juridikoa behar dute	Crowdfunding plataformak, komunikazioko aliatu handi gisa
Kolektibo batzuek ez dakite aukera hau dagoenik. Eta prozesua hasi aurretik zailegia izango dela uste da.	Crowdfunding-ekiko lotura, ekimenak ordaintzeko
Identifikazio digitalerako zailtasunak dituzten kolektiboak daude	Herritarren eta administrazioaren arteko elkarriketa-espazioak sortzeko aukera. Taiwan <a href="https://info.vtaiwan.tw/">https://info.vtaiwan.tw/</a>
Arauak ez dira ebaluatzen eta horietako askoren eragin positiboari eta negatiboari buruzko informazioa falta da; ezjakintasun horrek ez du laguntzen kontralegislatzen	Ekimenarekin lotutako dokumentazioa aztertu/kontsultatu ahal izatea. Ikusi bide osoa

Sustatzaileei denbora eta dirua kostatzen zaie ekimen bat aurkeztea	Tresnan sartzen diren erabiltzaileek esperimintatzen dutenaren esperientzia fisikoa sortzea
Nola mugatu aplikazioan parte hartzeko/atxikitzeko aukera duteen lurraldeak	Talde sustatzaileari idazketa errazteko eska daitekeen gutxieneko formatua duen "txantiloia" ematea.
Baliteke betekizunak/formalismoak berdinak ez izatea administrazio guztietan	Herritarrentzako legeria idazten laguntzea, inspirazio gisa, NZren esperimintazioaren adibide gisa erabil daiteke: <a href="https://www.digital.govt.nz/dmsdocument/95-better-rules-for-government-discovery-report/html">https://www.digital.govt.nz/dmsdocument/95-better-rules-for-government-discovery-report/html</a>
Aurkeztu beharreko edukiak lantzeko zailtasuna	Erregulatzailerak entzuteko eta inspiratzeko plataforma
Sinadura-tipologia desberdinak bateragarri egitea (papera/webgunea/sinadura digitala)	Herritarrekiko pedagogia egitea ahalbidetuko duena, ikasteko/ezagutzeko
Itxaropenen kudeaketa	Hizkuntza erraza. Lege-hizkeraren itzulpena
Administrazioak kolapsatzeko arriskua. Aldez aurreko beharra	Zalantzei prestakuntza-prozesuan zehar Administrazioak erantzuteko aukera

## 5. Egiteke dauden zereginak (hurrengo urratsak)

### PARTE-HARTZAILEAK:

Denbora faltagatik lehenengo tailer honetarako aurreikusitako zenbait gai landu barik geratu ziren, halaere beharrezkoa da hauek ere heltzea. Gai horiek kezkei, mugei eta motibazioei buruzko informazioa eman beharko lukete batez ere, baina ez eskusiboki. Hauek dira:

- Arrakastaren gakoak
- Arrisku-faktoreak
- Nola iritsi hartzaileengana

Atal hau hurrengo bilerara arte ez atzeratzeko eta ahalik eta informazio gehien izateko ondorio baliogarriak atera ahal izateko, parte-hartzaileei beren erantzunak banaka eta idatziz osatzeko proposatu zitzairen.

Horretarako, lantaldeko parte-hartzaileei posta elektronikoz egin gabeko galderak jasotzen dituen fitxa bat bidaliko zaie, eta erantzunak bai posta elektronikoaren bidez proiektuko edo bulego teknikoko arduradunen bati, zein, konpromiso-taldeko TEAMS txatean idatziz (edo dokumentua atxikituz) itzultzeko eskatuko zaie.

10 eguneko epea ezartzen da.

<b>ARRAKASTAREN GAKOA: KEZKAK</b>	<b>ARRISKU-FAKTOREA: MUGAK</b>	<b>NOLA IRITSI HARTZAILEENGANA: MOTIBAZIOAK</b>
Beharbada, tresnaren garapenak agerian utziko du legean edo legegintzako herri-ekimena arautzen duten gaur egun indarrean dauden arauetan aldaketaren bat egiteko beharra,	Proiektuaren irismenari dagokionez, indarrean dauden araudiak aldatzeko premiei buruzko gogoetak egiteko aukera aurreikusten da, nahiz eta horren ez duen esan nahi aldaketa horiek burutuko direnik proiektu honen alorrean.	
Araudi zahar samarrak. agian gaur egungo egoerarekiko hutsuneak agerian utziko dituztenak		

#### **BULEGO TEKNIKOA:**

Eskura ditugun erantzun guztiak bildu ondoren, bulego teknikoak taula osatu eta lortutako emaitzak aztertuko ditu, eta oduan bai, lehen tailer honen azken ondorioak idatziko ditu.



## 6. GOMENDIOAK:

### 1. gomendia:

Ekimenak aurkeztu dituzten pertsonekin harremanetan jartzea proposatzen da, beren esperientzia pertsonalean sakonduko duen elkarrizketa edo galdetegi baten bidez ikerketari gehitzeko.

Horrela, benetako erabiltzaile baten esperientzia osoa kontaktzen duen User Journey bat marraztu dezakegu, errealitate batetik abiatuta, esperientzia orokorraren inguruan eta, bereziki, tresnaren erabileran izan daitezkeen hobekuntza-arloak identifikatzeko.

### 2. gomendia:

Hausnarketa-saio bat egitea IL Ee izapideak erantzun dituzten pertsonekin.

DesideDatumek Miguel Ángel Gonzalo (Diputatuen Kongresuko Informazio Publikoaren Sarbiderako Batzordeko idazkaria) aditu gisa ekar dezake.

## 7. ERANSKINAK:

- I. eranskina. Deialdia: T1\_Deialdia-Convocatoria.pdf
- II. eranskina. Aurkezpena: OGP-C4\_Taller 1\_Presentacion.pptx